

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

94/2021 Foru Agindua, otsailaren 9koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario gisa sartzeko, deialdi honetan: administrazio bereziaren eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzaile laguntzailea)

Otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduaren bidez, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko lan eskaintza publikoaren oinarri arautzaile orokorrak onetsi ziren.

Uztailaren 30eko 297/2020 Foru Aginduaren bidez, praktiketako funtzionarioak izendatu ziren lanpostu honetarako: administrazio bereziaren eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzaile laguntzailea). Halaber, hautatutako izangaia behin-behinean atxiki zitzaizen lanpostu hauetara:

| IZENA | LANPOSTUA | KODEA |
|-----------------------------------|---------------------------------|----------|
| MARIA TRIGAS NAVAJO | Zerga ikuskatzaile laguntzailea | 1167.006 |
| BORJA RUIZ DE AZUA OCHOA DE ERIBE | Zerga ikuskatzaile laguntzailea | 1167.003 |

Oinarri orokorretako 13. apartatuaren arabera, balioespen batzordeak hautagai guztien praktika aldiari "Gai" eman dio azken kalifikaziotzat; hortaz, aldi hori gainditu dutenez, eta oinarri horiek 14. apartatuarekin xedaturikoarekin bat etorritik, bidezko da karrerako funtzionario izendatzea eta horri buruzko iragarkia ALHAOn argitaratzea.

Alde batetik, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren, eta diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Dekretuak aldatu egin zuen foru dekretu hori. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Praktikaldia gainditu duten funtzionarioak karrerako funtzionario izendatzea, Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorreko 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzan, ondoren adieraziko diren lanpostu hauetara atxikita sartzeko: administrazio bereziaren eskala, zerbitzu berezien azpieskala, egiteko berezien klasea, zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzaile laguntzailea). Hona hemen lanpostuak:

| IZENA | LANPOSTUA | KODEA |
|-----------------------------------|---------------------------------|----------|
| MARIA TRIGAS NAVAJO | Zerga ikuskatzaile laguntzailea | 1167.006 |
| BORJA RUIZ DE AZUA OCHOA DE ERIBE | Zerga ikuskatzaile laguntzailea | 1167.003 |

Bigarrena. Karrerako funtzionario izendaturiko izangaiek hilabeteko epea dute, izendapena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, beren lanpostuaz jabetzeko. Epe hori hamabost egun naturalez luza daiteke, lanpostura aurkeztu denak hala eskatu eta arrazoi justifikatua badago.

Ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak lanpostu esleituei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, aukerako berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren aurka, hilabeteko epean, Foru Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitute Administrazioekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 46.1 artikuluek eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 9a

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR